


Herri Aldizkaria Otamotz

❑ **IKER ANTIA JUARISTI** urretxuarraren margo erakusketa ikusgai dago apirilaren 30era bitartean Urretxuko Aldaketa erakusketa aretoan. Erakusketan, malenkoniari buruzko argizariz egindako 15 lan ikusi ahal dira. Hau da urretxuarrak bakarka eskaintzen duen lehenengo erakusketa, nahiz eta 1991. urtean Zumarraga eta Urretxuko zenbait artistak elkarlanean Zumarragan egindako bi erakusketatan parte hartutakoa den. Iker Antia Juaristik 22 urte ditu eta Arte Ederretako ikasketak burutzen dihardu Leioako Fakultatean.



❑ **JOSE LUIS PADRON**en *Egunez egun jendetzaren kiratsa* izeneko poema argitaratu berri du Lasarte-Oriako udalak. Poema honekin 1993. urtean Lasarte-Oriako VII. literatur lehiaketan euskarazko poesia sailean lehenengo saria lortu zuen. Baina hau ez da argitaratu duen lan bakarra. *Birmingham edit* argitaletxeak urte hasieran beste bi poeten lanekin batera, urretxuarraren poema bat ere argitaratu baitzuen. Liburu honetan, **José Luis Padrón Plazaolak** 1993. urtean Pasaiako Hirian saritutako *Vida al margen de todo* poema irakur daiteke. Bere ustez hau da egin duen argitarapenik serioena. Honetaz gain, EHU, Euskal Herriko Unibertsitateak, martxoan antolatutako *Euskal poesiaren bidea* ihardunaldietan errezitaldi poetikoak ere eskaini ditu.

❑ Joxe Mari Iparragirre institutuko 3. mailako ikaslek Kutxak antolatutako **94-95 ikasketa bidaia proiektua** lehiaketako 2. saria irabazi dute. Iaz ere lehiaketa honetan saritu zituzten eta aurten ikasleek 187.500 pezeta eskuratu dute Italia ezagutzeko antolatu eta aurkeztu duten bidaiaren txostenagatik. Guztira 70

ikasle eta 4 irakasle abiatu ziren apirilaren 26an Italiarantz eta maiatzaren 6a bitartean ibiliko dira bertan, besteak beste, Italian Florentzia, Erroma, Pisa eta Venezia eta Frantzia, Nimes eta Avignon bisitatuko dituzte herritar gazte hauek.

❑ Hilaren 12ko gauean, Zumarragako Udaletxeko **SEGURITATE KUTXA** lapurtu zuten. Lapurrek udaletxeko albo batetik sartu eta bulego desberdinak arakatu ondoren, seguritate kutxa aurkitu zuten. Udaletxeko atzealdeko zelaira bota zuten 200 kilo inguruko kutxa eta hemendik furgoneta batean Urretxurekin lotzen den zubitik alde egin zuten. Kutxan dirua, txekak eta talonarioak zeuden. Dirudienez, lapur talde profesional batek burututako lana izan zen.

❑ Hilaren 27an sinatu zen Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak bultzatutako Zumarraga eta Urretxuko erakunde eta elkarten arteko hitzarmenaren bigarren fasea. Zenbait talde berrik sinatu zuten urtebeterako hitzarmena.

EUSKALTZALEOK

Zintzo
Mintzo
ELKARTEA



ALTAMIRA LANTEGIAK
ZERBITZU OFIZIALA

Gure erakusketan zain gauzkazue!

Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)
© 72 33 71

20700 URRETXU



Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)
20700 URRETXU

© 72 04 18
Etxekoa: 72 28 19

ANTZERKI

TAILERRA

ESKENATOKIAN

Neska-mutil borondatetsu hauek luzaroan ilunpetan landutakoa argitara eraman dute. Urte eta erdi luze ondoren apirilean bi lan berri aurkeztu zituzten, "Bufonerías" eta "Ni laugarrenera eta zu?" izenekoak, Juan Luis Escuderoren eta Josu Etxeberriaren zuzendaritzapean. Azken honekin hitz egin dugu honetaz eta aurrerantzean dituzten asmoen berri jakiteko.



Antzerki tailerreko partaideak "Bufonerías" antzezlan amaitu ondoren

Otamotz: Nola irten dira bi azken antzezlan hauek?

Oso ondo. Lan txukuna burutu dugu interpretazio maila oso ona lortuaz. Jendeak lan eskasagoa espero zuen baina ez da honela izan, jende asko hurbildu da eta oso gustora atera da. Akats bakarra ahotsarena izan da baina bagenekien hala gertatuko zela. Izan ere interpretazio ikastaroa eman dugun arren, ez dugu ahotsa lantzeko betarik izan, hau, maiatzean emango dugun ikastaro batekin lortuko dugu.

O: Zenbat jende zabilzate?

Denera hamasei. Guztiak bertakoak gara legazpiar bat eta gasteiztar bat izan ezik. Hamasei izateak antzezlan baten prestakuntza zaildu egiten du eta hau da urte eta erdi ezer aurkeztu gabe egon izanaren arrazoi nagusia. Honengatik

taldea zatitu eta bi antzezlan burutu ditugu.

O: Zaila al da antzerki tailerra aurrera eramatea?

Zailena hutsetik hasita tailerrari norabide bat ematea izan zen. Orain arte egindako tailerrak iraupen laburrekoak izan dira, honekin badaramatzagu hiru urte. Iraunkortasun honek proiektu sakonagoa sortzea eskatzen du.

O: Zein asmo duzue hemendik aurrera?

Oraintxe ari gara hortaz hitz egiten. Agian lau monitore profesional berri ekarriko ditugu txandaka lan egin dezaten. Lau monitore ekartzeak ez du esan nahi guk utzi behar dugunik, proiektua hazten ari da eta jende gehiagoren laguntza behar dugu. Dena

den, oraindik pentsatzen ari gara. Bestalde, estreinatu berri ditugun bi obra hauek zenbait herritan ezagutaraziko ditugu, Urnietan esate baterako.

O: Eta ez al duzue datorren antzerki astean parte hartzeko asmorik?

Ez. Bertan parte hartzen duten taldeak erabat profesionalak dira eta gu oraindik gazte xamarrek gara. Beharbada datorren urtean, nork daki!

O: Zerbait gehitu nahi, edo?

Beharbada mutil gutxi hurbildu zaizkigula antzerkira. Batik-bat lagun talde bat gara. Beraz badakizue mutilak, futbola alde batera utzi eta ekintza berriak burutzera anima zaitezte. ●

ISkin

Poltsak, usaingarriak eta bitxiteria

Elizkale,17 20700 ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700 URRETXU

☎ 72 56 82
72 22 92

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE

Electricistas. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
20700 URRETXU

ELIZ - KALE

AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

POLITENA

TABERNA

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEG ALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN.
- IBILGAILUEN SALMENTA.
- GARBIKETA-ZUBIA.

ZERBITZU OFIZIALA



Mugitegi, 17 Pol. ☎ 72 51 37 - URRETXU - S^a Kutz, 17 ☎ 73 41 49 - LEGAZPI

MUSIKAZ BLAI!!!

Hemen ikus ditzakegu, besteak beste, Bastida zuzendaria, Martin Zenekorta "Tximista" zuzendariordea, Biain anaiak, Rekarte, Nemesio Calvo, Guillermo, Rodanes anaiak, Francisco alvarez de Arcaia, Alejandro Dominguez, Txapas, Rodriguez,...



Bai Zumarragan eta baita Urretxun ere, musika zaletasun handia izan da, horren lekuko dira hemen sortutako hainbat musikarari ospetsu, (Iparragirre, Esnaola, Busca Sagastizabal ...) edota bi herriotan dauden bandak ere.

Zumarragako banda orain dela ehun eta hogeita sei urte, erraz esaten da, sortu omen zen. Udaletxean dagoen lehenengo dokumentazioa 1880koa da, bertan dagoeneko Udal Banda gisa azaltzen da. Orduan zegoen musikazaletasunaren adierazgarria

da Zumarragak garai hartan 1950 biztanle izanik 45 lagunek osatzen zutela banda.

Bere bizitza luzean, zuzendari asko izan ditu. Hala nola, Juan Lino de Leturia (1880-1883), Demetrio Mujika (1883-1886), Martin Elola (1887-1908), Fermin Azpiazu (1908-1921), Severo Paternain (1922-1936), Jesus González Bastida (1939-1987) eta 1987tik aurrera Lander Zurdo dugu zuzendari.

Bere sorreran ezinbesteko garrantzia izan zuen trenbidearekin batera topografo

modura Zumarragara etorri eta gaur egunean ahaztuta daukagun Joaquín Castañedak.

Gaur egunean, 54 lagunek osatzen dute banda, 1985-1987an sartu zen lehenengo neska, egun hirutik bat emakumezkoa izanik.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Alejandro Domínguez, berak 50en bat urte baitaramatza jotzen.

Garai batean zartzuela, pasodobleak ... jotzen bazituzten ere, egun edozein motatako musika jotzen dute, bai sinfonikoa, bai filmeetakoa, bai jazza ...

Zumarragako musika bandak gero eta herri partaidetza handiagoa du, gero eta ikuslego gehiago hurbiltzen da Zumarragako Euskadi enparantzara ...



MAZMELA

erloju, bitxi eta zilardenda

Gernika plaza, 1 © 72 18 57
20700 URRETXU

ITURGINTZA

LUIS ANGEL

Berogailuak eta gasa
Sukalde eta komonak

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxa: 72 54 59

JAKIN

Seguritate kutxak

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU

INPORTAZIO BERRIAK

CAPADOCIA

ALFONBRAK - KILIM - CICIM - SUMAK

Zuzeneko inportatzailea

Konponketak egiten dira

Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETXU
© 72 17 71

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU © 72 14 13

ETXE - AZPI

JATETXEA

Igandeetan itxita!

Mugitegi, 27
20700 URRETXU © 72 51 65

Jaunartzea dela eta ...



Fermin Lasa

Balore erlijiosoa asko galdu da, jende askok atzera jo du, jendea hozten ari da. Jaunartu eta ondorengo ospakizunei buruz pixkat ondo dagoela iruditzen zait nahiz eta batzuk pasatu egiten diren.



Unai Izagirre

Iruditzen zait gauzak dexente aldatu egin direla, umeen aldetik jaunartzea erregaloak jasotzeko egun bat da, fedea galduta dutelarik. Honi buruz katekistekin hitz egin eta "pasota" batzuk direla esaten dute. Gurasoen asmoa semeengan fedea lortzea izango da baina ez da beti lortzen nire ustez.




Juani Arin

Bataiatzen ez diren umeek ez lukete jaunartzerik ere egin behar. Fedea ez duten gurasoek ez lukete beren seme-alabak jaunartzera bidali behar. Bestalde, hemengo ospakizunak ez zaizkit gehiegizkoak iruditzen, Galizian itxurakeria handiagoz egiten dira jaunartzeak.



Garbiñe Larrañaga

Moda bat dela iruditzen zait. Umeei jantzita joatea gustatzen zaie eta ilusioa egiten die. Jadanik inork ez du sinesten eta nire ustez nahiko faltsua da.



Zumarragarra, Valladolid eta Donostian medikuntza ikasketak burutu zituenetik, Parkinson gaixotasuna ikertzen buru belarri aritu da.

Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean zazpi urtez ihardun du lanean. Bertan eta Estatu Batuetan edota Ingalaterran egindako ikastaro ugarien bidez lortu du Parkinson gaixotasunean aditua izatea.

1992. urtetik hona Donostiako Quirón klinikan ari da lanean. Duela hilabete, martxoan, eritetxe honetan egin zen Europa mailako lehenengo Parkinson ebakuntzan parte hartu zuen eta oso gustora dago lortutako emaitza onarekin. Ordurarte, mota honetako ebaketak Estatu Batuetako Atlanta hirian bakarrik burutzen ziren.

GURUTZ LINAZASORO



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



Ileapaindegi
eta edertze
salonia

Ipeñarrieta, 11 © 72 29 19 20700 URRETXU



Mutua General de Seguros

Iparagirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99



URRETXU

OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOIA

Iparagirre, 1 © 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA



Osasuna munduko ondasuna!

JOGOTERAPIA, ERLAJAZIO ETA KIROMASAI
ZENTRUA

KARMA-YOGA

Labeaga 56 etxeazpia © 72 59 81 - 20700 URRETXU

EGUZKITAN GEHIEGI EGOTEA, GAITZ LARRIAK SORTZEN DITUEN OHITURA

Azken 50 urteetan eguzkia hartu eta azala belztuta izatea modako ohitura bilakatu da, baina eguzkia hartzeak gaitz ugari eta larriak sor ditzake. Udara eta eguraldi eguzkitsuak gainean ditugula kontutan izanik, eguzkiarekin izan beharreko arretari buruzko xehetasun gehiago jakin nahian Begoña Aseginolaza Zabaleta dermatologarekin izan gara.



Zumarragarra • Gasteiz eta Donostian medikuntza ikasitakoa • Dermatologia espezializazioa Argentinan egin zuen • Lau urtez izan zen bertan • 1991. urtez geroztik Zumarragako ospitalean lanean dabil.

Duela urte batzuetatik hona asko gehitu dira eguzkiak eragindako gaitzak. Honen arrazoia kutsadura atmosferikoan dagoela diotenak geroz eta ugariagoak badira ere, Begoña Aseginolazak dioenez, eguzkitan egotea modan dagoen ohitura izanik, geroz eta gehiago egotea da gaitzen ugaritzearen benetako arrazoia.

Eguzkitan egoteak sortarazten duen kalterik larriena minbizia da, baina babesik gabe denbora luzez eguzkipean egoteak azalaren zahartzea eta tumoreak ere eragiten ditu. Aurpegia da urte guztian zehar airea eta eguzkipean dagoenez, kaltetuen gertatzen den gorputzeko atala. Ondoren, eskuak, besoak eta emakumezkoen kasuan batez ere, hankak, belaunetik behera, dira atal kaltetuenak.

Eguzkiak beltzuneak sortzen ditu azalean eta zenbaitzuetan, luzaroan bi edo hiru hilabetetan sendatzen ez diren zauri edo lesio txikiak. Azken hauek aurpegian ateratzen dira batez

ere. Honelako markaren bat azalean somatzean, berandu baino lehen dermatologoarengana joatea gomendatzen du Begoña Aseginolazak. Lunarrak edo orainak ere zaindu beharrekoak direla esan du. Hauek handitu, kolorez aldatu edota hazkura edo mina eragiten dutenean beharrezkoa da kontsultatzea.

Mendian sortutako erredurak oso kaltegarriak direnez, kontu handia izan behar da

Euskaldunon artean eguzkiak eragin ditzakeen kalteei dagokionez, bi euskaldun mota bereizi behar omen dira. Beltzaranak batetik eta azal zuri eta begi argidunak bestetik. Azken hauek eguzkiak eragindako gaixotasunak hartzeko arrisku handiagoa dute.

Hala ere, eguzkiak ez ditu gaitzak bakarrik sortzen eta zenbait gaixotasun sendatzeko, eguzkitan

egotea komenigarria omen da, psoriasisaren kasua adibide moduan.

Eguzkiarekin kontu handia izatea da prebentziorik onena eta horretarako bi modu daude. Eguzkirik ez hartzea edota hartzekotan fotobabesak erabiltzea. Kremak behar beharrezkoak dira eguzkia hartzeko baina fotobabesle maila altua dutenak dira derrigorrez erabili beharrekoak. Azalaren arabera fotobabes gehiagoko edo gutxiagoko krema erabil daiteke baina, gutxienez 8tik gora ematea aholkatzen du. Umeen azala zuriagoa denez, 12tik gorako fotobabeseko krema erabili behar da. Krema hauek eguzkitara joan aurretik ematea gomendatu du, eta eguzkitan luzaroan egonez gero bi ordutik bi ordura eman behar da.

Eguzkitan egon nahi bada, neurri higienikoak kontutan izan behar direla behin eta berriz adierazi du. Honela, eguerdi partean ezin da eguzkitan egon eta denbora luzez hau egitea ere ekidin behar da.



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU



AROSZTEGIA

© eta Faxes: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU



Iaz Areizaga-Kalebarren enparantza inauguratu zutenetik, Zumarraga eta Urretxuko euskalki berriaren idatzizko lehen aztarna dugu bertan. Lucien Bonaparteren mapan kokatu eta Euskaltzaindiak kontuan hartu beharko duen euskalkia dugu. Laster, Miren Azkarate, Jean Haritschelhar eta aita Villasanteren bisita jasoko dugu horren azterketa sakona egitearren.

NONDIK DATOR!


ARANBURU

Euskal Herrian oso abizen ezaguna. Haraneko buru edo tontorraren esanahia du. Aranburutarren agerpen zaharrenetako bat 1376. urtean koka dezakegu, Donibane Garaziko epaile zen Alfonso de Arambururen berri baitugu. Gaunan (Araba) edo Mundakan (Bizkaia) ageri zaigu toponimo moduan. Baina, Urretxun jaio den Aranburutar ibiltarien eta ezezagunetariko bat Zenon Aranburu dugu, Wuhu (Txina) herriko apezpiku eta jesuiten nagusia. 1879. urtean Urretxun jaio, Jesusen Konpainian sartu (1897) eta denboraren poderioz, 1936.ean Wuhu herriko apezpiku izendatu zuten. Euskal Herrira itzuli ondoren, Loiolan hil zen 1969. urtean.

AURTENGO ERRENTA AITORPENA

Ohi denez, aurten ere hiru hilabete inguruko epea izango dugu aitorpena egiteko, apirilaren 3tik ekainaren 23ra arte hain zuzen ere.

*Aurreko urteetan bezalaxe, sistema arrunta jarraituz egindako errenta aitorpenak banketxeen bitartez aurkeztu edo Foru-ogasunak Donostian dituen bulego nagusietara eraman beharko dira. Aurten, aurreko urteetan ez bezala, Urretxu eta Zumarragako biztanleok **BEASAIN**go bulegoan, eta ez beste inon, aurkeztu beharko dugu aitorpen mekanizatua.*



Jon Gabilondo

Ez dago alde handirik iazko eta aurtengo errentaren gaineko zergaren aitorpenen artean. Hala ere, aipagarrienak, aurten, langabezian egoteagatik jasotzen diren dirulaguntzak eta elbarritasun iraukorko oso eta partzialengatik jasotzen direnak aitortu beharra dagoela dira. Beraz, lan-errentak bailiran aitortuko dira langabezian egonik nahiz elbarritasun iraukorko oso edo partziala izanik jasotako dirulaguntzak. Elbarritasun absolutua edo elbarritasun handia izateagatik jasotako laguntzak ez dira aitortu beharko.

Zergaren tarifen inguruan ez dago aldaketarik, ez bakarkakoan ez eta bateratuan, eta joan den urtekoak jarraitzen dute indarrean.


Kuotaren dedukzioei dagokienez, orokorrean iazko ekitaldiko kontzeptu eta kopuru berberak mantentzen diren arren, hainbat salbuespen dago:

a) Elbarritasunen bat izateagatik iaz, dedukzioa, 50.000.-pezetakoa bazen aurten 52.000.-pezetara igo da.

b) Ohiko etxebizitzaren alokairuaren orde 75.000.-pezetako mugan mantentzen da dedukzioa eta ordaindutako alokairuena %15ean; hala ere, dedukzioa izateko gehieneko diru-sarrerak edo ezarpen-oinarria 2.500.000.-pezetatik 3.000.000.-pezetara igo da bakarkako aitorpenetan eta 3.750.000.-pezetatik 4.500.000.-pezetara aitorpen bateratuan.

Amaitzeko, gogorarazi behar da bakarkako aitorpena egiten dutenek urteko 1.000.000.-PTA baino gutxiago eta aitorpen bateratua egiten dutenek urteko 1.200.000.-PTA baino gutxiago jasotzen badute lanaren ordainaz eta kapital mobiliarioaren eta ondarea handitzearen ordainaz ez dutela errenta-aitorpenik egin beharko. Kontuan hartu behar da, beti ere, kapital mobiliarioak eta ondareak ez dutela 250.000.-PTA baino gehiago balioko kasu horretan. Hala ere, dirua itzuli behar baldin badiete, aitorpena egiteko eskubide osoa dute. Pentsiodunen kasuan, 1.200.000.-pezetakoa izango da muga.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa fundazioa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza

URRETABIZKAIA ANAIK: " ELKARREKIN JARRAITU NAHIKO GENUKE"

Unai Urretabizkaiaren pilotarako grina, kalean pilota bat aurkitzearekin batera hasi zen. Garai hartan 6 urte zituen bere anaia Beñat bultzatu eta murgildu zuen pilota jokora handik urte batzuetara. Geroztik urteak pasatu dira eta bakoitzak jadanik bere lana baduen arren, Unai Arrasaten OHoko irakaslea da eta Beñat Elektronikako 5. mailan dabil, bikote paregabea dugu pilota munduan



Otamotz: Noiz kokatzen dituzue zuen hastapenak bikote bezala?

Duela urte t'erdi gutxi gora behera. Usurbilen lehenengo, gero Oñatin...

O: Zeintzuk izan dira orain arteko trabak eta zeintzuk momentu onenak?

Traben artean, mundu honetan aurkitu izan dugun mafia. Faboritismo handia dago eta askotan gauzak ez dira neurtzen norberaren ahalmenen arabera. Momentu onenen artean aipagarriena DV Txapelketan zer ginen demostratu genuenean koka daiteke. "Partxe" moduan gindoazen eta hor ikusi zen "partxe" baino gehiago ere baginela.

Unaik ere bidaiak aipatzen ditu: "Argentinan izan naiz, Munduko Txapelketan, baita San Francisco eta Kuban ere".

O: Hainbeste denbora pilotan eta berezitasunak edo anekdotak ere izango dira, ezta?

Berezitasunak... Aipa daiteke bai (dio Beñatek), oraingo pilotak lehengoak baino gogorragoak direla, eta horretaz kexatzen garenean ez da ahulagoak garelako orain. Bestalde, esan behar da ere atsegin bereziaz gogoratzen ditugula Goñiren garaiko entrenamenduak *Hermanotan*. Giro hori ez da berriro itzuliko, bikaina zen.

O: Proiektuak ere izango

dituzue, zer nolakoak?

Bai, gertuko proiektu bezala Elgetako Txapelketa. Azken urteetan (dio Unaik) Elgetan txapeldun izatea profesioletara iristeko "txartela" izan da. Aurrera begira ilusioa daukagu elkarrekin jarraitzeko afizionatutan, baina ondo ibiltzekotan noski.


Biek eskertzen dute gurasoen laguntza: "Aita eta ama erabakiorrak eta oso garrantzitsuak izan dira gure bidean, eskertu behar zaie guri emandakoa. Eta, bestalde ere, Goñiri aipamen berezia egin behar diogu". **Beñaten hitzetan:** "Goñik eman zidan niri, ahaldua momentu batean, bultzada garrantzitsua, bihotzez eskertuko diot beti..."



ZURICH
Aseguruak
Agustin Elias Larrea
Erregistro zenbakia: 2072563049 G
© 72 37 76 Faxa: 72 53 46
Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRETXU

URRETXU
KARROZERIAK, S.L
Automobilien pintaketa
eta txapa konponketa
Azkoitirako bidea, z/g
20700 URRETXU © 72 34 78

ALBAITARITZA KLINIKA
NEKOTZ
Ana Alustiza Zabaleta
Filipinas Uharteak, 5
20700 ZUMARRAGA © 72 49 26



ANSA
Ura guztion eskura!
S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 04 23



ARGIKI
PARRA anaiak C.B.
S. Esnaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 41 64



TXINATAR
JATETXEA
Eguneko menua: 750 pta.
Menu bereziak
109 plater ezberdin
Labeaga 33 (Madaya) URRETXU © 72 52 43

MENDI IRTEERAK

Maiatzak 6: Ostadar eta Goierri mendi taldeek Barazar mendatetik Kruzeta mendaterainoko Uren Banalerroko ibilaldia burutuko dute.

Maiatzak 13 eta 14: Ostadar Mendi Taldeak Errioxako Demandako mendizerrara antolatutako irteera, Valvanerako monastegia, Beneguerra lepoa (1.730 m.) eta Ezkaraiko herria bisitatuz.

IRTEERA

Maiatzak 24: MAIRI emakume elkarteak Bizkaiko kostaldera antolatutako txangoa. Irteera goizeko 8:30etan izango da eta itzulera gaueko 10ak inguruan. Prezioa, 3.000 pezetatan da, otordua barne.

ANTZERKIA

Maiatzak 8tik 14ra bitartean Zumarraga eta Urretxuko IX. Antzerki Astea ospatuko da. Bederen I, Ttataka, Cachivache, In Fraganti, Flying Dutchmen eta Por-Pol antzerki taldeek hartuko dute parte antzerki astean eta Pagoeta Antzokian, Zumarragako Euskadi plazan eta Beloki pilotalekuan antzeztuko dira lanak. Antzeztuko diren 7 lanetatik 3 euskaraz izango dira.

HITZALDIA

Maiatzak 10: Jose Agustin Arrietak "Kontu bat al da erlijioa?" izeneko hitzaldia emango du Urretxuko Kultur Etxean arratsaldeko 3:30etan. MAIRI emakume elkarteak antolatutako hitzaldia da.

OMENALDIA

Maiatzak 5: Hits & Fits Bandak antolatutako Gotzon Aleman zumarragar poeta zenaren omenezko ekitaldia. Joan Mari Irigoien idazleak, Txomin Artola abeslariak eta Urretxu eta Zumarragako Zuhaitzaren Soinua kolektiboko bi txalapartarik hartuko dute parte bertan. Zumarragako Legazpi Dorretxean izango da ilunabarreko 7:15etan.

BERTSO AFARIA

Maiatzak 26: Zintzo-Mintzoko Kultura Taldeak antolatutako bertso afaria. Goierri Elkartean izango da. Informazio gehiago Zintzo-Mintzoren elkartean.

ZORIONAK



Iker Alemán, 5 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Lourdeseko Ama ikastolako OHoko Haur Hezkuntzan ari da.



Ivan Serrano, 14 urte beteko ditu maiatzaren 16an. Labeaga ikastetxeke OHoko zortzigarren mailan ari da.



Endika Maroto, 7 urte beteko ditu maiatzaren 18an. San Jose ikastetxeke OHoko lehenengo mailakoa.



Marc Carlos Durán, 9 urte beteko ditu maiatzaren 23ean. Legazpi Eskolak ikastetxeke OHoko hirugarren mailakoa.



Asier Martin, 6 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zelai Aristi ikastetxeke OHoko Haur Hezkuntzan ari da.



Beñat Kerejeta, 3 urte beteko ditu maiatzaren 27an. G a i n z u r i ikastetxeke bi urteko gelakoa.

O r a i n URKIOLA

jantzidendan,
gure puntako markez gain

SNIF, EMOI, DIESEL,
REPLAY, CHARRO, ISLAND,
DANIEL HECTER, CALVIN KLEIN,
GAULTIER JEANS, HARVEY ROTHSCHILD,
MARITE FRANCOIS GIRBAUD.

URKIOLA modaren puntan

Bidegurutzeta, 42
Bergara

Nagusia, 9
Legazpi

